

DONOS- TIAKO EMAKU- MEEN ETXEA

2026
PROGRAMA

IRAILTIK ABENDURA



Okendo kalea 9

AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, pres-takuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko, eta berdintasunean eta feminismoan oinarritutako gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Lantalde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek lantalde guztietan har dezakete parte.

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA



Okendo kalea 9, 20004 Donostia



943 48 34 70



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00



info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus



www.donostiakoemakumeenetxea.com



KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **izen ematea irailaren 10etik 24ra arte** izango da. Gutxieneko inskripziora iristen ez diren ikastaroetan izena emateko epea luzatu egingo da, ikastaroa hasten den egunera arte.
- Izen-ematea internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.labur.eus/donostia-berdintasuna
Anima zaitetz eta hurbil zaitetz Etxera, ez geratu izena eman gabe.
- Ikastaro, zerbitzu eta ekimen guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Aurrez abisatu ezean, zerbitzuetako hitzorduetara ez datozenek ezin izango dute zita berririk eskatu urte beteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.



EZAGUTZEN AL DITUZU ETXEKO GUNE PARTE-HARTZAILEAK? BADAKIZU NOLA PARTE HARTU?

- Elkarteko bazkide egiten (e-mail bidez Etxeko informazio guztia jasoko duzu).
- Elkarteko lan-talde batekin bat eginez. Idatzi info@donostiakoemakumeenetxea.com helbidera.
- Etxeko ikastaro edota tailerretan izena emanez.
- Batzarrean parte hartuz.

ANIMATU ETA EGIZU BAT ERALDAKETA FEMINISTAREKIN!!!



ZER AURKITUKO DUZU PROGRAMA HONETAN?

→ **ESKOLA FEMINISTA**

- **PRESTAKUNTZA FEMINISTARAKO TAILERRAK**
Iraupen laburreko tailerrak, gai espezifikokoak lantzeko.
- **MATRAKA GUNEAK**
Irailetik udara arteko luzapena duten ikastaroak.
Izen-ematea irailean egiten da.

→ **ELKARGUNEAK**

Ikasturte osoan zehar biltzen diren taldeak.
Urte osoan irekiak. Bat egiteko, jarri harremanetan Emakumeen Etxearekin.

→ **AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK**

Aldez aurretik hitzordua eskatuta. Hitzordu bat eskatzeko, jarri harremanetan Emakumeen Etxearekin.

PRESTAKUNTZAKO BLOKEAK

Gai zehatzak lantzeko gune trinkoen bidez, diskurtsoak eraiki eta elkar hartuko dugu, prestakuntzaren bitartez elkar ahalduntzeko asmoz.



TWERKING FEMINISTA: GORPUTZA, AHALDUNTZEA ETA PELBIS-DANTZAK

7 saio

Prestatzailea:	Katthia Rain
Eguna:	osteguna
Ordua:	18:30 - 20:30
Hasiera:	urriak 8
Amaiera:	azaroak 19
Hizkuntza:	elebiduna

Mugimendu eta gorputz-adierazpen taile-rra, twerk eta pelbis-dantzen bitartez, ahal-duntzerako, autonomiarako eta norbere gorputzarekin berriz konektatzeko tresna gisa. Esplorazio librerako, gozamenerako eta konfiantza sendotzeko gune segurua, ongizateari eta ahalduntze kolektiboari begira antolatua.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

MUGIMENDU FEMINISTA ETA SEXU GENERO DISIDENTEON BORROKAK EUSKAL HERRIAN: BIDEAK, EZTABAIDAK, ERALDAKETAK

6 saio

Prestatzailea:	Uma Ulazia
Eguna:	astelehena
Ordua:	18:30 - 20:30
Hasiera:	urriak 19
Amaiera:	azaroak 23
Hizkuntza:	euskara



Euskal Herriko Mugimendu Feminista eta sexu genero disidenteon borrokaz arituko gara, luze-zabalean. Mugimenduen genealogiaz; abortua, indarkeria matxista edo zaintza gisako eztabaida zahar-berriei; subjektuaren inguruko gogoetaz eta transfeminismoaz... jardungo gara. Gaurkotasuneko auzi feministen inguruan hausnartu eta so-lasteko aukera eskaini nahi du tailer honek.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

INTERNET GUZTIONTZAT

5 saio

Prestatzailea: Anaís Córdova-Páez
Eguna: asteartea
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 13
Amaiera: azaroak 10
Hizkuntza: gaztelania

Interneten eta teknologian zehar ibilbide kolektibo bat egingo dugu ikuspegi feminista interseksionaletik: bere genealogia feministetatik eta bere funtzionamendutik, sarea autonomiaz, babesez eta irizpide etikoz bizitzeko tresna zehatzak praktikan jartzeraino. Tailerrak teoria, praktika eta parte-hartze aktiboa uztartzen ditu, ezagutza kolektiboa eta parte-hartzaileen esperientzia ikaskuntzaren erdigunean jarritz. Elkarrekin ikasteko, galderak egiteko eta Interneten egoteko beste modu batzuk eraikitzeke gune bat.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

EMAKUMEON KOMUNIKAZIOA JENDAURREAN: ASKE KOMUNIKATZEKO TRESNAK

6 saio

Prestatzailea: Iruten Estudioa Koop.
Elk. Txikia
Eguna: asteartea
Ordua: 18:00 - 20:00
Hasiera: urriak 6
Amaiera: azaroak 10
Hizkuntza: euskara



Emakumeok jendaurrean lasaitasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko tresnak partekatuko dira: aurre prestaketa, mapa mentalak, gorputz espresioa, hizkuntza, mezua nola helarazi eta nola transmititu. Bileretan, prentsaurrekoetan, mahai baten inguruan, aurkezpen batean... testuinguru ezberdinak aztertuko dira. Elkarriketa landuko da eta teoriak jorratzeaz gain, oso praktikoa izango da. Teknika eta ariketa ezberdinak ikasiko ditugu konfiantza eremu batean, gero jendaurrean lasai hitz egin ahal izateko. Proiektu pertsonala eta taldekakoa burutuko dugu 6 saioetan zehar.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ELEKTRIZITATE LABORATEGI FEMINISTA: BELDURRA GALTZEA ETA AUTONOMIA IRABAZTEA

4 saio

Prestatzaileak: Arrate López
Isabel Álvarez

Eguna: osteguna
Ordua: 18:00 - 20:30
Hasiera: azaroak 26
Amaiera: abenduak 17
Hizkuntza: gaztelania



Ezagutza teknikoak irisgarria izan behar duela uste dugulako sortu dugu proiektu hau. Elektrizitateak ez luke beldurra sortu behar, autonomia baizik. Tresnak erabiltzen, zirkuituak ulertzen edo instalazio bat konpontzen irakastea ez da soilik trebetasun praktikiko bat: ingurunearekiko eta gaitasunaren ideiarekiko harremana eraldatzeko modu bat da. Espazio horiek sortzeak berekin dakar gizarte bidezkoago baten alde egitea, non ezagutza ez dagoen generoak baldintzatuta.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Euskaraz Azaroak 3 eta 10

2 saio

Prestatzailea: Lahia 3.0
Eguna: asteartea
Ordua: 16:00 - 20:00

Zenbat aldiz itzuli zara etxera eman zentzakeen erantzun posibleak pentsatuz? Zenbat aldiz galdetu diozu zure buruari zergatik egin diozun irribarre komentario horri? Zenbat aldiz sentitu duzu beldurra? Egunerokotasunean emakume izateagatik besterik ez, egoera ezberdinen aurrean gure burua defendatzeko beharrean aurkitzen gara. Egoera horiei erantzuteko izan ditzakegun aukera posibleak denon artean eraikitzeke ikastaroa dugu hemen.

Gaztelaniaz Azaroak 5 eta 19

2 saio

Prestatzailea: Maitena Monroy
Eguna: osteguna
Ordua: 17:00 - 20:00

Indarkeria matxistaren aurrean erantzuten ikastea ikasketa zaila da emakume askorentzat. Autoestimuko eta autodefentsa fisiko eta psikologikoko teknika bat da, ahalduntze FEMINISTAREN bidean sartuta dagoena.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

MATRAKA GUNEAK

Gune hauek irailean irekitzen ditugu eta, toki libreak egonez gero, urtarrilean ere bai. Ikasturte osoko lanketa feminista bat egiten da bertan, eta Etxetik kanpoko proiektzioa duen talde bat sortzen da.



KLOWN

Prestatzailea: Itziar Saenz de Ojer

Eguna: astelehena

Ordua: 18:30 - 20:00

Hasiera: urriak 5

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: Elebiduna

Gozamenez, barre algarez, adierazpen artistiko zein politikoz eta jolas eta inprobisazioz beteriko gunea; elkartasunerako eta gogoeta feminista kolektiborako espazioa. Anima zaitetz. Clown teknika erabiliz, arauak eta estereotipoak zalantzan jartzera: egin aurre patriarkatuari barrearen bidez!



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Prestatzailea: Aitziber Eguskiza

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30 - 20:00

Hasiera: urriak 7

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: Elebiduna



Ikastaro hau antzerki-teknika anitzen bitartez ahalduntze indibidual zein kolektiboa lantzeko gunea izango da. Gorputzak erdigunean jarritz, zentzumenak landu eta adierazteko aukera izango dugu, jabetkuntza feministarako bidean sakonduz eta antzerkia bera horretarako tresna dela ulertuz.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

BATUKADA FEMINISTA

PLAZA MUGATUAK

Prestatzailea: Ainara Sarasketa
Arantxa Albizu
Eguna: asteazkena
Ordua: 18:00 - 20:00
Hasiera: urriak 14
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: Elebiduna



Espazio honetan perkusioa eta erritmoak baino askoz gehiago aurkituko duzu. Talde-lanak, sormen musikalak eta aldarrikapen politiko feministek bat egiten dute hemen. Batukadako instrumentu bat jotzen ikasi eta sarea sortu nahi baduzu, eman izena!

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

CORO

Prestatzailea: Bettina Aragón
Eguna: ostirala
Ordua: 19:30 - 21:00
Hasiera: urriak 2
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Elkarrekin abestuz mundua eraldatzeko prest al zaude? Hala bada, Ederlezi abesbatzak besoak zabalik hartuko zaitu. Emakumeek idatzitako eta moldatutako piezak kantatzeaz gain, feminismoa oinarri duen giroa ziurtatua dago gurean.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

XILOGRAFIA FEMINISTA

Prestatzailea: Oihana Ugarte
Eguna: astelehena
Ordua: 18:00 - 20:00
Hasiera: urriak 5
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: euskara

Ikastaro honetan xilografia-teknikaren hastapenak ezagutuko ditugu. Ariketa praktiko bidez, oinarrizko kontzeptuak landuko ditugu: lanabesen eta gubien erabilera, xaflaren lanketa, estanzazioa; zein positibo, negatibo, trama eta testurak. Teknika hori baliatuz, gure sormen-sena garatuko dugu, modu indibidual zein kolektiboan.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

XAKE

Prestatzaileak: Elisabeth Agirre
Leire Cruz

Eguna: asteartea (Xake 1)
astelehena (Xake 2)

Ordua: 19:30 - 20:30 (Xake 1)
18:00 - 19:00 (Xake 2)

Hasiera: urriak 6 (Xake 1)
azaroak 9 (Xake 2)

Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna

Xakea gustuko baduzu eta beste emakume batzuekin batera espazio feminista batean praktikatu nahi baduzu... eman izena! Ikasi hutsetik hasita, berrikusi oinarrizko kontzeptuak edo hobetu zure xake-trebetasunak. Anima zaitez, eta guztion artean, emakumeon parte-hartzea ikusaraziko dugu kirol honetan!



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

IRAKURLE TALDEAK



PROMESAREN DENBORAK EUSKAL LITERATURAN

Prestatzailea:	Iratxe Retolaza
Eguna:	osteguna hilabetearen behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 22
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara

Antolatzailea: Berdintasun Saila

Azken aldian askotariko promesak gogoetagai dituzten literatur lanak argitaratu dira, bestelako harremanak, espazioak, imaginarioak, memoriak... eraikitzeko promesak ardatz dituztenak, edo promesari bide ematekoa aukerez eta zailtasunez mintzo direnak. Marina Garcés filosofoak ere promesaren denbora delakoaz gogoetatu zuen euskarara 2025ean argitaraturiko testu batean. Marina Garcés filosofoaren gogoetak abiapuntutzat hartuta, eta irakurle-talde honetan promesa-motaren bat ardatz dituzten literatur lanak izango ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak promesa horiek nola zeharkatzen dituzten aztertzeke asmoz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: zein promesa-motari buruz hitz egin da euskal literatura garaikidean? Promesa-mota horietaz nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nola eraikitzen ditugu geure promesen eta pertsonaien promesen arteko harremanak?

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Prestatzailea:	Iratxe Retolaza
Eguna:	osteguna hilabetearen behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 15
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Artikulu, liburu eta hainbat idatzietatik abiatuta, ikastaro honek feminismoa izango du ardatz. Irakurzaletasuna baliatuz, kolektiboan pentsatzeko zein hausnartzeko tarte eskainiko da, pentsamendu feministaren oinarrian dauden gogoeta, galdera eta eztabaidagaiak ulertzeko. Jakintza norbanakotik haratago eraikitzen dela aintzat hartuta, euskal kultura genero-ikuspegitik aztertzeke gunea ere izango da.

BESTE AHOTS BATZUK

Prestatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	asteartea hilabetean behin
Ordua:	19:00 -21:00
Hasiera:	urriak 20
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Gutako bakoitza errealitateari buruzko begirada bat gara. Begiratzeko modu asko daude, ikusten dena kontatzeko modu desberdinak dauden bezala. Batzuk gugandik hain urrun daudenez, badirudi beste mundu bat dela begiratzen dutena, eta, hala izango da, seguruenik. Ikastaro honetan, beste kontinente batzuetako emakumeak ezagutuko ditugu, beste kolore batzuetakoak, beste kezka batzuk dituztenak, beste begirada eta ahots batzuk dituztenak, ikusten duguna berriro argitzeko gai direnak.

MINBIZIA LITERATURAN

Prestatzailea:	Lorea Arrieta
Eguna:	osteguna, hilabetean behin
Ordua:	18:30 - 20:00
Hasiera:	urriak 8
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara

Irakurle-talde honetan, minbizi-esperientziak ardatz dituzten literatura-lanak izango ditugu hizpide, izan narrazioak izan saiakerak. Hausnarketa kolektiboa bultzatuz, ezbaian jarriko ditugu minbiziaren inguruko aurreiritziak eta diskurtso interesatuak, eta tokia egingo diegu bestelako kontakizunei. Azken batean, gaiari hurbiltzeko beste helduleku batzuk proposatzea izango da helburua.

AMIGAS

Prestatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	osteguna hilabetean behin
Hora:	19:00 -21:00
Hasiera:	urriak 22
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Idaztea ofizio zaila izan da beti emakume-entzat eta, horregatik, ipuingintza izan dute askok aterpe. Idazle izateko ahalegin horretan, kontakizunen egiturak modernizatu eta gai berriak jorratu zituzten. Ikastaro honetan, aitzindarietatik abiatuko gara: E. Pardo Bazánen idazkietatik hasi, idazle anglo-saxoi handiekin jarraitu, AEBko hegoaldeko egileak ezagutu eta gaur egungo obretara iritsi arte. Aurrez hautatutako antologiaren bidez, egile bakoitzaren kontakizun esanguratsuenetan murgilduko gara.



ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekita mantentzen dira parte hartzaile berrientzat. Parte hartu nahi baduzu, deitu edo gerturatu Emakumeen Etxera.



BIBOLLO ELKARGUNEA

Dinamizatzailleak: Beatriz Zalacain
eta Ana Murcia (SORBURU)

Eguna: asteartea

Ordua: 15:00 - 17:00
18:00 - 20:00

Hasiera: irailak 29

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania



Donostiako Emakumeen Etxean elkargune zaindu bat eskaintzen dizugu, beste BIBOLLERA batzuk ezagutzeko, bizitzan zeharkatzen gaituzten errealitateen aniztasuna sentitzeko eta hitz egiteko, eta elkarrekin bizitza duin eta zoriontsuak eraikitzeko.

NESKA GAZTEENTZAKO JABEKUNTZA GUNEA

Dinamizatzaila: Lahia 3.0

Eguna: asteartea,
hamabostero

Ordua: 17:30 - 19:30

Hasiera: Irailak 15

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Askotariko generoetako neska eta gazteei zuzendutako gunea da. Bertan, feminismoekin, diskriminazioekin, berdintasunezko harremanekin eta abarrekin lotutako gaiak lantzen dira, ahalduntze-prozesu bat sustatuz.

Nori zuzendua?

15-20 adin tarteko neska eta genero anitzeko orori.

Nola eman izena?

Astelehenetako Biluzik Zerbitzura hurbilduz, biluzikzerbitzua@hotmail.com helbidera edo [@lahia3.0](https://www.instagram.com/lahia3.0). Instagrameko kontura idatzi daiteke ere. Donostiako Emakumeen Etxearekin harremanetan ere jarri zaitezke eta zita bat jarriko dugu, zure beharrak eta nahiak ezagutzeko.

ETXEKO LANGILEEN TALDEA

Dinamizatzailea: SOS Arrazakeria

Eguna: asteartea
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: irailak 8
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania



Atzeritar jatorriko etxeko langileentzako asteroko topagunea. Helburua isolamendu soziala haustea eta elkarri laguntzeko eta entzuteko sareak sortzea da.

AUTOEZAGUTZA ETA ZAINNTZA INTEGRALA

Dinamizatzailea: Kontxi Lopez

Eguna: ostirala,
 hamabostero
Ordua: 17:00 - 19:00
Hasiera: urriak 2
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Emakumeen arteko topaketa eta hausnarketa talde bat abian jartzeko gunea. Gure bizi-kalitatea hobetzeko autoezagutza lan bat, zoriontsuagoak izateko, zoriontasuna ere politikoa baita, kolektiboa. Tratuon-gune bat eraikiko dugu, nork bere burua ezagutzeko, geure burua maitatzeko, onartzeko, entzuteko, gure gorputzaren prozesuak ulertzeko (sentsazioak, emozioak, pentsamenduak, jokaerak...), ulertzeko zergatik funtzionatzen dugun, nola funtzionatzen dugun, zer den sentitzen duguna eta nondik datorren hori guztia. Ez ditugu gure beharrak ahaztu behar.

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Dinamizatzaileria: Daiteke

Eguna: asteartea

Ordua: 16:30 - 18:30

Hasiera: irailak 8

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania



Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza talde bat da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirarekin duten harremana ezagutu eta taldearen laguntza jaso.

Antolatzailea : Berdintasun Saila

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Dinamizatzaileria: Aitziber Eguskiza

Eguna: osteguna

Ordua: 16:30 - 18:30

Hasiera: irailak 10

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



Antolatzailea: Kultur Aniztasuneko Saila

TALDEKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Dinamizatzailea: Maider Andonegui

Eguna: astearte,
hamabostero

Ordua: 14:30 - 16:00

Hasiera: irailak 8

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania



Talde gune bat, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbitea egiten digun gunea, gure ustez zapaldu egiten gaituen hori komunean jarrita. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun nortasun eta sinismen horiek ez baitigute uzten gure erabakien jabe izan eta bizitza autonomo eta indarkeriarik gabeari aurre egiten.

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Dinamizatzailea: Elkartu

Eguna: ostirala

Ordua: 12:00 - 14:00

Hasiera: irailak 4

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.



Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileek

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Egilea:
SOS Arrazakeriak

Asteartea
16:30 – 18:45
Hitzordurekin

Lege Aholkularitza

Familia zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerritartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Ana López

Asteazkena
17:00 - 21:00
Hitzordurekin

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

     **943 48 34 70**

** Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu urtebeteko epean.*

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maider Andonegui

Asteartea
10:30 -13:30
Hitzorduekin

Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

Egilea:
Bidez Bide

Osteguna
10:00 - 13:30
Hitzorduekin

Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduekin

Sare sozialetan:



@lahia3.0

Email:
biluzikzerbitzua@hotmail.com

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Asteazken zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00



DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

OKENDO KALEA 9

